

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko azaroaren 17an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

3.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzari buruz, Jose Antonio Herrasti Oquina jaunaren eskaera onartzea.

Alkate-udalburuaren 2022ko azaroaren 14ko proposamenak dio:

Gaia: Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzari buruz, Jose Antonio Herrasti Oquina jaunaren eskaera onartzea.

Expediente zk. 2022ZDKO0002
Expedientearen helbidea: FORUEN ENPARANTZA 1
Udalerria: OÑATI
Gaia: Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntza eskaera
Interesduna: Jose Antonio Herrasti Oquina.
Prozedura: ZDKOUdalak emandako diru-laguntzak (konpetentziaz)
Hasiera-data: 2022/10/18
Sarrera erregistroa: 2022/3567

Sozioekonomia eta Turismo batzordean Jose Antonio Herrasti Oquinak hasitako prozedura aztertu da. Aipatutako gaiari dagokionez, jarraian agertzen diren **gertakariak**:

Lehenengoa.- Jose Antonio Herrasti Oquinak “Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntza” eskaera egin du 2022ko urriaren 19an.

Hona hemen azaldutako **gertakarien balorazioa**:

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean eta Oñatiko Udalaren Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen deialdia eta oinarriak kontuan izanda,

Lehenengoa.- Jose Antonio Herrasti Oquinak betetzen dituela dirulaguntza hauek eskuratu ahal izateko oinarrien 3. artikuluan - *“Pertsona edo erakunde onuradunak”* - zehaztutako baldintzak.

Bigarrena.- Jose Antonio Herrasti Oquinak betetzen dituela sorturiko lanpostuarengatik dirulaguntza jasotzeko oinarrien 4. artikuluan - *“Laguntza motak, zenbatekoak eta horiek jasotzeko baldintzak”*.

Hirugarrena.- Jose Antonio Herrasti Oquinak ez dituela betetzen negozio-lokalen alokairuentzako dirulaguntza jasotzeko oinarrien 4. artikuluan - *“Laguntza motak, zenbatekoak eta horiek jasotzeko baldintzak”*. Izan ere, Jose Antonio Herrasti Oquinak garatzen duen jarduera ekonomikoa ez dago sartuta diruz lagundua izateko oinarrietan zehazten diren txikizkako merkataritza edo hiri merkataritza jarduera moten barruan.

Laugarrena.- 4. Artikuluan zehaztutako laguntzen zenbatekoak kontuan hartuta, 1.500 euroko dirulaguntza onartzea proposatzen da, honelako zehaztasunekin:

- Sustatzaileak sorturiko lanpostuagatik dirulaguntza: 1.500 euro.

Horrenbestez, gertakari hauen azalpenak Sozioekonomia eta Turismo batzordean eman ostean, honakoa **proposatzen da**:

Lehenengoa.- Jose Antonio Herrasti Oquinak aurkeztutako dirulaguntza eskaera onartzea.

Bigarrena.- Dirulaguntza ordainketa agintzea eta 1.500€-ko gastua onartzea, 1 1000.480.241.01.01 (389) eta 1000.480.241.02.01 (563) aurrekontu partida eta bere lotespen mailaren kontura.

Hirugarrena. - Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatu du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Laugarrena. - Dirulaguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Bosgarrena. - Erabaki hau eta Kontuhartzaitza sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.”

Azaldutakoagatik, sozioekonomia eta turismo batzordearen oniritziarekin, tokiko gobernu batzordeari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Jose Antonio Herrasti Oquinak aurkeztutako dirulaguntza eskaera onartzea.

Bigarrena.- Dirulaguntza ordainketa agintzea eta 1.500€-ko gastua onartzea, 1 1000.480.241.01.01 (389) eta 1000.480.241.02.01 (563) aurrekontu partida eta bere lotespen mailaren kontura.

Hirugarrena. - Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatu du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Laugarrena. - Dirulaguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Bosgarrena. - Erabaki hau eta Kontuhartzaitza sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

Alkatearen O.I.

IDAZKARIA

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan

